

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2023 000003194

**Xedea****2023-07-10 (e)ko OSOKO BILKURA ez ohiko** deialdia.**Aurrekariak**Lehenengoa: 2023ko ekainaren 17an udal Udal Korporazio berria eratu zen.

Bigarrena: Ez ohiko osoko bilkura ospatu behar da 2023ko uztailaren 23an Gorte Orokorretako hauteskundeak izango direnez, egun bera aprobetxatuz auzo alkateen hauteskundeak ospatzeko. Izan ere, 2023an ospatu behar dira eta auzokoen erosotasuna bermatzeko helburuarekin eta udalaren antolakuntza lana ez bikoizteko helburuarekin egun berean auzo alkateen hauteskundeak deitzea komeni da. Osoko bilkura ahal denik eta arinen egitea ezinbestekoa da, besteak beste, auzo alkateek zein auzotarrek ahal denik eta arinen jakiteko hauteskundeak izango direla, dagokion publizitatea ahal denik eta arinen egiteko eta udal antolaketarako erabakiak ahal denik eta arinen hartzeko. Horregatik, ez da aurretiaz Informazio Batzorde berezia deituko, informazio batzordea deitzeak, gutxienez, hiru egun gehiago berandutuko lukeelako auzo alkateen hauteskundeen deialdia (uztailaren 13ra arte); eta gaurko datara arte (2023ko uztailaren 5era arte) ez delako udal antolaketa eta funtzionamendurako osoko bilkura berezia izan, non informazio batzordeen eraketa onartu den. Beraz ezinezkoa izan da, aurretiaz, informazio batzorde berezia egitea.

**Argudioak**

Bakarra: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluez gain, legeria honen arabera:

**Sinadurea eta data**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

## Ebazpena

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

**LEHENENGOA:** OSOKO BILKURA osatzen daben zinegotziak deitzea ez ohiko batzarrera.

**BIGARRENA:** Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

**HIRUGARRENA:** 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea zinegotziei asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

**BOSGARRENA:** Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.





## BATZAR DEIA

<b>Deitutako organoa:</b>	<b>OSOKO BILKURA</b>
<b>Batzarra:</b>	Ez ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Eguna:</b>	<b>2023-07-10 (Astelehena)</b>
<b>Ordua:</b>	08:36
<b>Lekua:</b>	Gizarte eta Kultura Etxeko gaztelekuko lokala
<b>2. deialdia:</b>	2023/07/13 (Osteguna) 08:36

### GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2023-07-05 OB (08)
2. - Auzo alkateak izendatzeko prozedureari hasikerea emotea onartzea.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .

